

**48/2012 Ebazpena, 2012ko otsailaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez ordezkapenen eta ebentualitateen (2011ko aldi baterako kontratazio-zerrendak) zerrendan izena emateko epea zabaltzen da berriro 2008ko Enplegu Eskaintza Publikoan deitu ziren kategorietan**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez (EHAA, 232 zk., 2008ko abenduaren 3koa), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetzan lotura estatutario finkoa eskuratzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bidez (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko denaren bidez, aldi baterako kontratazio-zerrenda berriak arautzen dira.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 135 zk., 2011ko uztailaren 15ekoa), Arabako osasun-barrutian Arabako Unibertsitate Ospitalea izeneko osasun zerbitzuen erakundea sortzen da, eta Santiago Ospitalea eta Txagorritxu Ospitalea osasun zerbitzuen erakundeak kentzen dira.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2011ko uztailaren 22ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 187 zk., 2011ko irailaren 30ekoa), Basurtuko, Gurutzetako, Donostia Ospitaleen eta Arabako Unibertsitate Ospitalearen izendapena aldatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 237 zk., 2011ko abenduaren 16koa), Gipuzkoako osasun-barrutian Debagoieneko, Debabarreneko eta Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuak sortu ziren, eta Gipuzkoa-Ekialdeko Eskualdeko (Ekialde) osasun erakundea aldatu zen, aurrerantzean Gipuzkoako Eskualdea deitzera pasatuz, eta Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea osasun zerbitzuen erakundea kendu zen.

Horrenbestez,

## EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** Berriro epe berri bat zabaltzea Zerbitzu Erakundeak eta/edo ordezkapen eta ebentualitateetarako (2011ko aldi baterako kontratazio-zerrendak) zerrenden zentroak aukeratzeko 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak prestatu eta kudeatzeko den 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Aldi Baterako Xedapenaren arabera.

**Bigarrena.-** Eskaera soilik modu telematikoan egingo da, <http://www.osakidetza.euskadi.net> web-orriko aldi baterako kontratazio-programa erabilita, bertara honela iritsi ahal delarik: Profesionala/Giza Baliabideak/Hautaketa eta Horniketa/Aldi baterako Kontratazioa/2011ko kontratazio zerrendak.

**Hirugarrena.-** Eskabideak aurkezteko epea: 2012ko otsailaren 14tik otsailaren 23ko 14:00ak arte, biak barne.

**Laugarrena.-** Aukeraketari buruzko xehetasunak eskabide-epea zabaltzeko lehen aipatutako web orrian argitaratuko diren jarraibideetan zehaztuko dira.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, web orrian argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko otsailaren 13an



**Osakidetza**  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZA  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Tomás Mendoza Carnicero  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA